M8

CRUEren adierazpena, 2026ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta

Madril, 2026ko martxoaren 8a. 2026ko martxoaren 8an, Espainiako unibertsitateok bat egiten dugu Emakumeen Nazioarteko Egunerako NBEren Emakumeen atalak proposatu duen lemarekin: «Eskubideak. Justizia. Ekintza. Emakume eta neska GUZTIENTZAT». Gure erakundeak interpelatzen ditu lema horrek, gure misioa baita ikerketaren, irakaskuntzaren eta transferentziaren bidez ezagutza sortzea, transmititzea eta aplikatzea.

Unibertsitatearen esparruan, emakumeen **eskubideak** defendatzeak esan nahi du bizitza akademiko, zientifiko eta profesionalean erabat parte hartuko dutela bermatzea, oztoporik, arrakalarik eta diskriminaziorik gabe. Jazarpenik eta indarkeriarik gabeko ingurune seguruak sustatzea esan nahi du, eta aukera-berdintasuna benetako printzipio eraginkor bihurtzea, adierazpen formal hutsetik harago.

Justiziak errealitatea genero ikuspegitik aztertzea eta horren arabera jokatzea eskatzen digu. Lortu diren aurrerapenak eta gure aurretik esparru akademikoan eta zientifikoan bidea ireki duten emakumeak egon badira ere, arrakalak eta oztopoak hor jarraitzen dute oraindik, eta horrek mugatu egiten du ikerketa ibilbidean aurrera egitea, baldintza berdinetan, eta zaildu egiten du erabakitzeko eta lidergorako espazioetan sartzea. Desberdintasun horiek zuzentzea ez da kontu sinbolikoa. Justiziazko-eskakizun bat da, unibertsitate-ekintzaren kalitatea, bikaintasuna eta osotasuna indartzen dituena. Unibertsitatea ezin da erabat bidezkoa izan bere talentuaren zati bat ikusezina bada eta ordezkaritza eskasegia badu.

Ekintzak ausardia, erantzukizuna, koherentzia eta konpromiso jarraitua eskatzen ditu. Hitzetatik ekintza sendoetara pasatzea esan nahi du, berdintasun-politikak sendotu eta ebaluatzea, emakumeen bokazio zientifikoak garatzea eta merezimendu femeninoaren ebaluazioa, finantzaketa eta aintzatespena baldintzatzen jarraitzen duten egiturazko alborapenak ezabatzea. Halaber, unibertsitateen arteko eta administrazio publikoekiko, produkzio-sarearekiko eta gizarte zibilarekiko lankidetza indartzea dakar, hezkuntza eta zientzia ekosistema inklusiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko.

2026ko Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) desberdintasunik gabeko unibertsitatearekin duen konpromisoa berresten du, lidergoetan askotarikoa, zainketa erantzukizunetan ardurakidea eta giza eskubideen defentsa aktiboan eredugarria izango dena.

Hemendik, **Eskubideak, Justizia eta Ekintza** aldarrikatzen ditugu emakume eta neska GUZTIENTZAT. Eta, bereziki, ikasten, ikertzen, irakasten eta lan egiten duten emakume eta neska gazteentzat gure unibertsitateetan. Unibertsitateko elkarteko kide garen guztiok dugu gure erakundeak berdintasunerako eta etorkizunerako gune bihurtzeko ardura.

Informazio hori neurri batean edo osorik erabil daiteke, iturria aipatuta: CRUE Espainiar Unibertsitateak